



EAEn gizarte arriskuan edo gizarte gatazkan dauden adingabeekin esku hartzeko ereduak

CRIM-AP taldearen III. Ikerketa Jardunaldia

2017ko URRIAREN 19a, osteguna. Antonio Beristain entzunaretoa.

Carlos Santamaria zentroa, UPV/EHUn Gipuzkoako Campusa, Donostia.

“EAEn gizarte arriskuan edo gizarte gatazkan dauden adingabeekin esku hartzeko ereduak” jardunaldia, hain zuzen ere, Kriminologiaren Euskal Institutuak gai horren inguruan antolatu duen aurreneko ekitaldia da. Izan ere, gure ikerlerro nagusietako bat horixe da, hots, gure komunitatean gizarte arriskuan dauden eta arauak urratzen dituzten adingabeak aztertzea. Duela hamar urtetik baino gehiagotik, Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzak aldian-aldian abiatzen dituen Gazte Justiziarako planak ebaluatzen ditugu; hori dela eta, gai horren inguruko erreferentziazko ikertalde unibertsitarioetako bat gara hala Euskadin nola beste erkidego guztietan. Hala, jardunaldira gonbidatu ditugun hizlariei erreparatuta, argi ikus daiteke gizarte arriskuan dauden adingabeekin lan egiten duten beste organismo batzuekin elkarlanean dihardugula.

EGITARAUA

08:45 - 09:00: Dokumentazioaren entrega.

09:00 - 09:30: **Jardunaldiaren aurkezpena.** César San Juan jn., Crim-AP ikertaldeko ikertzaile nagusia. Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea.

09:30 - 10:30: **Esku hartzeko ereduak EAEko foru aldundietan.** Yolanda Pérez and., Gipuzkoako Foru Aldundiko Egoitza Harrerako atalburua.

10:30 - 11:00: Eztabaida-Solasaldia.

11:00 - 11:30: Atsedena.

11:30 - 12:30: **Esku hartzeko ereduak Eusko Jaurlaritzaren Justizia Zuzendaritzako Gazte Justiziararen arloan.** Patxi López Cabello, Eusko Jaurlaritzaren Gazte Justiziako Zerbitzuko burua.

12:30 - 13:15: **Eusko Jaurlaritzaren Gazte Justiziarako Planaren ebaluazioa.** Estefanía Ocáriz and., Crim-AP ikertaldeko ikertzailea. Instituto Vasco de Criminología-Kriminologiaren Euskal Institutua. Universidad del País Vasco-Euskal Herriko Unibertsitatea.

13:15 - 14:00: Eztabaida-Solasaldia.

14:00: Amaiera.



Sarrera doakoa da, baina **ezinbestekoa da aurretik izena ematea** plazak libre egongo direla bermatzeko eta dagokion ziurtagiria jasotzeko. Bertaratuei hautazko 0,5 kreditu emango zaizkie aparteko lan bat egiten badute.

Izena emateko azken eguna: **urriaren 15a.**

Informazioa jasotzeko eta izena emateko: 943 – 017472 /

www.ehu.eus/es/web/dms/tercerajornada

